

OSAKIDETZA

2018ko otsailaren 7ko 111/2018
Erabakiaren bidez, egindako
Oposaketa-Lehiaketarako deia
(EHAA 35 Zkia. 2018ko otsailaren
19koa)

Concurso-Oposición convocado por
Resolución 111/2018 de 7 de febrero
de 2018 (B.O.P.V. Nº 35 de 19 de
febrero de 2018)

KATEGORIA:

**FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO
MEDIKUA**

CATEGORÍA:

FAC. ESP. MÉDICO PSIQUIATRÍA INFANTIL

Proba eguna: **2018ko maiatzaren 20a**
Fecha prueba: **20 de mayo de 2018**

4. ariketa / 4ªejercicio

EUSKARAZ

1. KASU KLINIKOA

12 urteko mutikoa, bere psikiatrarenera joan da jarraipen-kontsulta batera.

Betidanik izan da mutil inpultsiboa, arreta bideratzeko zailtasun nabarmenarekin, ezinegon psikomotorra, eta zailtasunak harreman sozialetan, taldean jolastean ez dituelako txandak errespetatzen. 7 urte zituenean, Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua diagnostikatu zioten, eta handik urtebetera, Metilfenidato tratamenduarekin hasi zen, eta gaur egun ere tratamendu horrekin dago.

Sintoma horiez gain, duela zenbait urtetik, umeak eskrupulositate seinaleak ditu (etxean edalontzi bat erabili behar duenean, garbitu egiten du garbi badago ere), eta horregatik ez du eskolako jantokian bazkaldu nahi. Gutxi gorabehera azken hiru urteotan eskuak askotan garbitzen ditu zerbait ukitzen duen bakoitzean, noizbait eskoriazioak eragin arte ere; beste batzuetan, zapiak erabiltzen ditu gauzak hartzerakoan “ez zikintzeko”, eta ateak ukondoekin irekitzen ditu. Joera du gauza batzuk aldi-kopuru jakin batean egiteko (adibidez, motxila ireki eta ixtea, bere logelako argia piztea, edo bere logelara sartzean behin baino gehiagotan sartu eta irten behar izatea), eta bere logelan gauza batzuk ondo lerrokatuz “ordenatu” behar ditu, eta horrek guztiak denbora asko hartzen dio. Umearen gurasoek diote haserretu egiten dela ez baditu gauza horiek egiten, eta noizbait bultzatzen ere egin izan die gauza horiek egiten utz diezaioten. 9 urte zituenean, psikiatrak tratamendu farmakologikoa gomendatu zien sintoma horiek tratatzeko, baina gurasoek nahiago izan zuten medikazio gehiago ez eman, Metilfenidatoa hartzen ari zelako jada. Halere, jokabide horiei espezifikoki bideratutako tratamendu psikoterapeutiko indibiduala hasteko gomendioa jarraitzea erabaki zuten.

Duela bi urte, begiak kliskatzen eta lepoa mugitzen hasi zen, eta gero sorbaldak eta besoak ere mugitzen hasi zen. Geroago, soinu guturalak egiten eta eztarria behin eta berriro garbitzen hasi zen; bere ikaskideek bromak egin izan dizkiote horregatik, eta ikasgelan borroak ere izan ditu.

Gaurko kontsultan, mutikoaren amak psikiatrari esan dio azken urtean umearen inpultsibitateak okerrera egin duela, baita haren arreta-gaitasunak ere, eta umearen jokabideak larriagotu egin direla dio. Garbitasunari, ordenari eta gauzak hainbat aldiz egiteari lotutako jokabideekin tematzen da. Halaber, amari bitxiak iruditzen zaizkion jokabideak ditu: batzuetan, gorputza batabatean bihurritzen du gorputz-enborra, besoak eta sorbaldak mugitzen dituen bitartean; eta beste batzuetan, ibiltzen ari dela makurtu egiten da, lurra eskuaz ukitzen du, gero esku hori miazkatu egiten du, kirrinka moduko bat egiten du, eta salto batekin, ibiltzen jarraitzen du.

1.- Ondorengo nahasmendu hauetako zein du ume honek?

- a) Autismoaren espektroko nahasmendua.
- b) Nahasmendu bipolarra, episodio maniakoa.
- c) Nahasmendu obsesibo-kompulsiboa.
- d) Mugimendu estereotipatuen nahasmendua.

2.- Ondorengo hauen artetik, zein dago indikatuta umeak duen nahasmendu horren tratamendu farmakologikorako?

- a) Sertralina.
- b) Guanfazina.
- c) Aripiprazola.
- d) Azido balproikoa.

3.- Kasu kliniko honetako umeak badu hirugarren nahasmendu psikiatriko komorbido bat, Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduaz gain eta 1. galderan adierazitako nahasmenduaz gain?

- a) Nahasmendu eskizofreniformea.
- b) Tourette-ren nahasmendua.
- c) Nahasmendu disruptiboa.
- d) Ez du beste nahasmendu komorbidorik.

4.- Kasu kliniko honi dagokionez, zein da OKERREKO erantzuna?

- a) Predisposizio genetikoa kasu hauen bereizgarri bat dela kontuan hartuz, litekeena da aurrekariak izatea lehen mailako senideen artean umeak duen nahasmenduren bati dagokionez.
- b) 9 urte zituenean aholkatu zioten tratamendu farmakologikoak, gurasoek baztertu zutenak, kontsulta honetan antzeman zaizkion novo sintomak agertzea ekidindo zukeen.
- c) Ume honen lobulu frontalaren, sistema linbikoaren eta oinarriko gongoilen disfuntzioak eragin ditu dauzkan nahasmenduak.
- d) 9 urte zituenean kontsultan gomendatu zioten tratamendu psikoterapeutikoa, ziurrenik, terapia kognitibo konduktualen bat izango zen.

5.- Kontuan hartuz umea tratamendu psikoterapeutiko indibidualean dagoela, eta umearen klinika, eboluzioa eta komorbilitatea ikusita, psikiatrak hainbat aukera ditu, kontsulta honetan gomendatuko duen tratamendu farmakologikoari dagokionez. Adieraz ezazu zuzena.

- a) Metilfenidatoaren ordez Lisdexanfetamina har dezala gomendatzea.
- b) Metilfenidato dosia jaitea eta ez gomendatzea beste farmakorik.
- c) Metilfenidatoaz gain Klomipramina har dezala gomendatzea.
- d) Metilfenidatoaren ordez Risperidona har dezala gomendatzea.

ERRESERBAKO GALDERA

6.- Farmako hauen arteko zein izan liteke umeak 9 urte zituenean psikiatrak gomendatu zuena eta gurasoek ez ematea erabaki zutena?

- a) Klorazepato dipotasikoa.
- b) Risperidona.
- c) Fluboxamina.

d) Topiramatoa.

2. KASU KLINIKOA

15 urteko mutila. Gazte-justiziako Heziketa Zentro erdi-ireki batean sartu zuten, Gurasoen kontrako indarkeria episodio errepikatuen eta salaketaren ondoriozko epai judizial baten ondorioz (Adingabeen Epaitegia), eta zentro horren ekimenez, kontsultara etorri da lehenengoz. Gurasoek salaketa jarri zuten, gazteak amari berriro ere eraso eta mehatxu (arma zuri batekin) egin ziolako eta etxeko altzari gehienak suntsitu zituelako (sukaldeko altzariak, leihoak eta atea). Psikologo forentseak ohartarazi duenez, “erakutsi duen indarkeria errepikakorra, aldeztu aurretik pentsatua izan da, harrapatze-jokabidea”. Harrerako elkarrizketan, gurasoek esan dute haurdunaldia eta mutilaren garapen psikomotorra normalak izan zirela. Seme bakarra da. Diotenez, beti izan zen oso segurua eta autonomoa, eta txiki-txikitatik elkartu izan da bera baino kide helduagoekin. Ez da ezohikoa mutilak gaua etxetik kanpo igarotzea. Onartu egin dute mutilaren heziketan nolabaiteko inkoherentziaz jokatu dela, “izaera desberdinak dituztelako”, eta bereziki lehen haurtzaroan “diziplina handia” erabiliz konpontzea erabaki zutela azaldu dute. Mutilaren errendimendu akademikoa onargarria izan zen 13 urte bete zituen arte. Garai hartan hasi zen gurasoekin, irakasleekin eta ikaskideekin gatazka garrantzitsuak izaten eta eskolara askotan ez joaten. Kannabisaren ohiko kontsumoa objektibatu arren, gurasoek beti sinetsi zituzten “esaten zizkigun gezurrak”, eta orain badakite “zigorrek ekiditeko” erabiltzen zituela.

7.- Goiko deskripzio klinikoa kontuan hartuz, zein da pazientearen funtzionamendua hobekien azaltzen duen DSM-5 diagnostikoa?

- a) Ezezko nahasmendu desafiatazaila.
- b) Aldizkako nahasmendu leherkorra.
- c) Jokabidearen nahasmendua.
- d) Nortasunaren nahasmendu antisoziala.

8.- Aurkezpen klinikoaren arabera, nolakoa dela zehaztu genezake?

- a) Haurtzaroan hasitakoa.
- b) Hasiera goiztiarrekoa.
- c) Nerabezaroan hasitakoa.
- d) Hasiera zehaztugabekoa.

9.- Diagnostiko honen irizpide diagnostikoen artean daude:

- a) Pertsona eta animalien kontrako eraso-historia, baina kalte larriarik edo/eta sexu-erasorik gabe.
- b) Jabetzaren suntsiketa episodioak (ez dio inoiz surik eman etxebizitza bati pertsonak edo animaliak barruan izanik).
- c) Borroka ugari.
- d) Guztiak.

10.- Baieztapen hauetako bat EZ dator bat pazientearen diagnostikoarekin:

- a) Hiperatibitatearen edo/eta arreta-defizitaren sintomekin erlazionatuta egotea eboluzio txarragoa izango duen seinale dela ematen du.
- b) Legez kontrako substantzien kontsumoarekiko lotura argia dago, baina oso gutxitan egoten da erlazionatuta sexu-jokabideen hasiera goiztiarrekin.
- c) Espero baino ehuneko handiagoan gerta liteke bere buruaz beste egiteko ideiak izatea eta bere buruaz beste egiten saiatzea edo lortzea.
- d) Batez bestekoaren azpiko adimena izatea arrisku-faktore izan daiteke nahasmenduaren garapenerako.

11.- Baieztapen hauetako zein da diagnostiko honekin erlazionatu ahalko litzatekeena eta, ondorioz, gurasoekiko itzultze-elkarrizketan aipatuko litzatekeena?

- a) Ziurrenik, eta familiak esandakoa gorabehera, baliteke sintomak haurtzaro erditik nerabegarora bitarteko aldiari hasi izana.
- b) Ezohikoa da nahasmendua helduaroan arintzea.
- c) Diagnostiko hau ezin zaie egin 18 urtetik gorako pertsonari.
- d) Diagnostiko hau duten gazteek gutxitan lortzen dute gizartean eta lan-munduan behar bezala egokitzea helduaroan.

ERRESERBAKO GALDERA

12.- Mutilaren heziketa-proiektuan hauek sartuko ditugu:

- a) Orientaziorako eta laguntzeko familia-elkarrizketak.
- b) Talde-psikoterapia edo/eta terapia indibiduala mutilarentzat.
- c) Heziketa arloko eragileekiko koordinazioa.
- d) Guztiak.

3. KASU KLINIKOA

5 urte eta bi hilabeteko mutikoa, harremanetarako zailtasunak ditu, oso lotsatia da eta hizkuntza arloan baliabide gutxi ditu. Hiru urte eta erdi zituenean, autismoaren arloko erakunde aditu batek baloratu zuen, eta autismoaren espektroko nahasmendua baztertu zuen: balorazio-txostena ekarri dute. Garai hartan gutxi hitz egiten zuen, eta gutxiegi begiratzeko aurpegira. Jaiotzerakoan mekonioa irentsi zuen, eta ordubete inguru egon behar izan zuen oxigenoarekin. Haurdunaldiko azken hilabetean amak behazun-kolikoak izan zituen, ezin izan zion bularrik eman, eta aita izan zen lehen biberioia eman ziona ama ondoezik zegoelako. Handik hilabete eta erdira, amari ebakuntza bat egin zioten. Jaioberri lasaia, ona, bestelako zailtasunik gabea. Urte eta erdi inguru zituenean, esaten zitzaiona ez zuela ulertzen iruditzen zitzaion. Neuropediatriara bideratu zuten hiru urte eta erdirekin: esplorazio neurologikoa normala.

Gure esplorazioan ikusten dugu bere motrizitate fina nahiko traketsa dela, hizkuntzan nolabaiteko atzerapena duela, eta ez duela inolako harridurarik adierazten ebaluatzailearekiko. Kostatzen zaizkion gauzak egiteari uko egiten dio, eta frustratzen bada, erabat blokeatzen da "(hori egiten) txarra naiz" esanez. Tratamenduan zehar enkopresia aldiak agertzen dira, batzuetan desagertu egiten dira eta aldiro-aldi itzultzen dira.

Bender-ean ikusmen eta pertzepzio heldugabetasuna ageri da. EMAVEan normaltasunean dago eta WISC-V-an 99ko KI homogenea du.

Sei urte eta erdirekin, terapeuta aldatu du, eta bakarrik geratutakoan lurrean dagoen puzzlea desegin eta zatiak edonora bota ditu, terapeuta berriari pieza batekin eraso txiki bat eginez. Terapeutak espazioaren mugak gogorarazi behar izan dizkio: "ezin dira gauzak hautsi, ezta elkarri minik eman". Mutikoak terapeutari galdetu dio ea beldur den, unibertsoa hautsi dezaketene meteoritoei eta dinosauroen suntsipenari buruz hitz eginez. Jarraian, lasaitu eta mugak onartu ditu, eta segituan eskatu du barkamena.

Ama oso urduri dago, semeari laguntzeko ahal duen guztia egingo ez balu bezala. Aitak, berriz, ez die halako garrantzirik ematen semearen zailtasunei, pasako direlakoan dago, eta nahiz eta presente egon, amaren esku uzten du semearen heziketa, eta amak eskatzen duela-eta kontsultaz kontsulta ibili behar delako kexatzen da.

13.- ENKOPRESIari dagokionez, ondorengo baieztapen hauen artetik, zein da ZUZENA?

- a) Heldutasun fisiologikoaren atzerapenak ez du eraginik euste-kanporatze motako gatazka afektiboan.
- b) Enkopresi sekundario baten aurrean, lehenengo proposamen terapeutikoa tratamendu sintomatiko bat izango litzateke, enema edo supositorio bat, adibidez.
- c) Eginkariak zama afektibo handiko bide bat dira, beti gorputzaren edukiari lotuta.
- d) Harremanaren dimentsioak erlazio txikia du enkopresiarekin, amak kontrol exigentzia oso goiztiarra badu izan ezik.

- 14.- Sintoma hauetako zein da tratamenduaren bilakaeran pronostiko ona iradoki lezakeena?
- a) Ulermen-hizkuntza bereganatzeko prozesuaren atzerapena.
 - b) Psikomotrizitate finari lotutako atzerapena.
 - c) Profesional berri baten aurrean larritasuna sentitzea.
 - d) Enkopresia.
- 15.- Terapeuta berriarekin izan zuen banan-banako lehenengo saioko indarkeriari dagokionez:
- a) Hitzeko hizkuntza erabiltzerakoan dituen mugen ondorioz, bere larritasuna indarkeriaren bitartez adierazten du.
 - b) Banantzearen larritasunak eragin zuen.
 - c) Ziurrenik umeak jaso duen tratua indarkeriaren isla da.
 - d) Bere desantolamendu mental larriaren seinale da.
- 16.- Familiaren funtzionamenduari dagokionez:
- a) Amak bere semearen garapenaren harira duen antsietatea izango da umea sendatzeko motorra.
 - b) Amaren antsietatea amaren kezka primarioaren arrasto bat da, eta umeak bere gaitasunak ongi gara ditzan, nahitaezkoa da kezka hori pixkanaka desagertzen joatea, baina badirudi ezin izan dela behar bezala egin.
 - c) Ama errudun sentitzen da ez dela ama ona izan uste duelako, eta umearen bilakaerari dagokionez adierazten duen antsietatea erruduntasun horrekin dago erlazionatuta, eta umearen disfuntzioak eragiten ditu.
 - d) Umeak frustrazioarekiko dituen zailtasunak islatzen du bere familian oso permisiboak direla eta zailtasunak dituztela mugak jartzeko.
- 17.- GNS-10 gaixotasunen nazioarteko sailkapeneko kategoria diagnostiko desberdinen artean, zein izango litzateke probabilitaterik altueneko diagnostikoa?
- a) Mintzamenaren nahasmendu espezifiko F80
 - b) Nahasmendu hiperzinetikoa F90
 - c) Garapen-nahasmendu orokortu zehaztugabea F84.9
 - d) Garapen-nahasmendu espezifiko mistoa F83

ERRESERBAKO GALDERA

- 18.- Nolako tratamendua izango litzateke egokiena?
- a) Harremanetarako psikomotrizitatea eta logopedia
 - b) Harremanetarako psikomotrizitatea eta familia-terapia
 - c) Tratamendu farmakologikoa eta familia-terapia
 - d) Logopedia, harremanetarako psikomotrizitatea, psikoterapia indibiduala eta familia-lana

4. KASU PRAKTIKOA

Anak 24 hilabete ditu. Erdialdeko Amerikakoa da jatorriz. Bere gurasoek umea jai baino 3 urte lehenago emigratu zuten Espainiara. Zailtasun ekonomikoen eta bikote-arazoaren ondorioz, amak (Anaz haurdun zegoela) bere herrialdera itzultzea eta alaba han izatea erabaki zuen. Amaren aldeko amona hurbil zeukan arren (eta amarentzat laguntza handia omen zen), Anaren ama oso bakarrik sentitzen zen alabaren jaiotza ondoren, eta Anarekin oso hurbileko harremana izan zuela dio, “depresio batean ez erortzen” lagundu omen ziona. Hala ere, ama oso errudun sentitzen zen alaba aitarik gabe izateagatik. Aita behin baino ez zen joan Ana ikustera, alabak urtebete zuenean.

Anak 14 hilabete zituenean, egun batetik bestera, amak Espainiara itzultzea erabaki zuen, aitarekiko egoera konpontzeko asmoz. Bidaia egin eta 15 egunera, amaren aldeko amona, Anarentzat erreferentea zena, bat-batean hil zen, eta Ana urrutiko izeba baten ardurapean geratu zen. Ama ezin izan zen Anaren bila joan 5 hilabete igaro ziren arte. “Familiaren ezagun batek” deitu ziolako joan zen Anaren bila, Ana gaizki zegoela eta medikuarenera eraman behar zutela esan ziolako. Anak, ordurako 19 hilabete zituela, jolasteari eta gauzekiko interesa agertzeari utzi zion. Goibel zegoen, joanda, ez zuen inorekin egon nahi, ez zuen irribarre egiten eta oso gaizki egiten zuen lo. Asko tematu behar ziren jan zezan. Pureak besterik ez zuen jaten, lehenago ongi mastekatzen zuen arren. Ibiltzeari ere utzi zion, eta horrek ama asko harritu zuen, Anarengandik aldendu zenean lehenengo urratsak egiten hasia zelako. Ama asko atsekabetu zen Anak ez zuela ezagutu ikustean, eta beraz ahaztu zela ere pentsatu zuen. Bere herrialdean esan zioten Anak garapen-atzerapen bat zuela, eta ama ez zen sentitzen alaba berak bakarrik hezteko gai. Aitak alaba Espainiara ekar zezan konbentzitu zuen, ordurako 24 hilabete zituela.

Pediatrak egiaztatu zuen Anak beherakoak dituela eta bere egoera fisikoa desnutrizioaren mugan dagoela, eta horregatik, osasun-zentroan kontsulta bidezko esku-hartze intentsiboa planteatu zuen erizainarekin batera. Baina kezkarriena da badirudiela Ana bere baitan itxita dagoela, ez du negarrik egiten eta ez da kexatzen. Bere tonu motorra hipotonikoa da, eta elkarrekintzetan, medikuari ia ez dio erantzuten. Aitak jaioberri bat balitz bezala hartzen du besotan. Behin baino gehiagotan errepikatu behar dio bere izena, badirudi ez duela entzuten eta bere herrialdean otitis bat baino gehiago izan zituen. Nolanahi ere, entzumena ongi dauka. Medikua beste kezka bat da amak amonaren heriotzaren ostean izan duen gogo-aldartearen, uste du zabarkeria-arriskua dagoela, eta presazko kontsulta eskatu du dagokion ume eta nerabeen Osasun Mentaleko Zentroarekin.

19.- KASU HONETAN ONDORENGO DIAGNOSTIKO GUZTIAK PLANTEA LITEZKE BAT IZAN EZIK, ZEIN DA SALBUESPEN HORI?

- a) Garapen-nahasmendu orokortu zehaztugabea.
- b) Lotura-nahasmendu erreaktiboa.
- c) Mututasun selektiboa.
- d) Depresio anaklitikoa.

20.- KASU HONETAN ZEIN IZANGO LITZATEKE UMEAREN EGOERA MENTALA EBALUATU ETA AZTERTZEKO PLANIK EGOKIENA?

- a) Bakarkako jolas-esplorazioa umearekin, amarengandik banantzean zer erantzun duen ere aztertzeke.
- b) Garapen-proba azkarrak pasatzea, atzerapenaren larritasuna ebaluatzeke.
- c) Guraso-alaba elkarrizketa, loturaren kalitatea behatzeko.
- d) Hasierako elkarrizketa gurasoekin bakarrik, haien gaitasunak eta psikopatologia potentziala baloratzeko.

21.- UME HONEK 24 HILABETE DITUELA KONTUAN IZANIK, ZEIN DIRA GAINDITUTA IZATEA ESPERO LIRATEKEEN 3 GARAPEN-MUGARRIAK?

- a) Ezezagunen aurrean larritasunezko erantzuna izatea, "Ez" a bereganatzea eta 3 hitzetik gorako esaldidun hizkuntza-jarioa.
- b) 8. hilabeteko larritasunezko erantzuna, 3 hitzetik gorako esaldidun hizkuntza-jarioa, eta bakarrik ibiltzea.
- c) "Ez" a bereganatzea, objektu pertzeptiboa mantentzea (Piaget) eta 3 hitzetik gorako esaldidun hizkuntza-jarioa.
- d) Bakarrik ibiltzea, ezezagunen aurrean larritasunezko erantzuna izatea eta objektu pertzeptiboa mantentzea (Piaget).

22.- PROBA HAUETAKO BAT EZ DAGOKIO 24 HILABETEKO NESKATXO BATEN BALORAZIO DIAGNOSTIKOAREN BARRUKO GARAPEN-MAILAREN EBALUAZIOARI:

- a) Bayley-III eskalak.
- b) Umeen Wechsler eskala WISC-V.
- c) Merrill-Palmer eskala berrikusiak.
- d) Brunet-Lezine eskala.

23.- NOLAKO ESKU-HARTZE TERAPEUTIKOA IZANGO LITZATEKE EGOKIENA?

- a) Estimulazio psikomotorrean eta hizkuntzaren estimulazioan oinarritutako Arreta Goiztiarreko esku-hartzea.
- b) Ama-alaba kontsultak eta laguntzeko esku-hartze bat familia-hezitzaile batekin etxean.
- c) Ospitalizazioa, umea bere familiarengandik aldentzeko eta arrisku medikoko egoera tratatzeko.

d) Umea harrera-familia baten esku uztea, guraso biologikoen gutxiegitasun-arriskuagatik.

ERRESERBAKO GALDERA

24.- FASE HAUETAKO BAT BOWLBY-K EZ ZUEN DESKRIBATU 8 HILABETETIK GORAKO UME BATEK BERE ZAINZAILE NAGUSIARENGANDIK ALDENTZEAN DUEN ERANTZUNAREN BARRUAN:

- a) Urruntze-fasea.
- b) Atxikimendu sinbiotikoko fasea.
- c) Etsipen-fasea.
- d) Protesta-fasea.

5. KASU PRAKTIKOA

KONTSULTAREN ARRAZOIA

Jokin 13 urteko nerabe bat da. Bere pediatriak bideratu du gugana, sabelaldean min zehaztugabeko episodio bat baino gehiago izan dituelako eta azken urte eta erdian min hori Jokin eskolara ez joateko justifikazio gisa erabili delako. Zailtasun horien ondorioz, lehen hezkuntzako 6. maila “nahiko” batekin gaingitu du, bere errendimenduak behera egin duen arren dauzkan gaitasunengatik.

Jokin bigarren semea da, eta arreba bat du. Bere arrebak 6 urte gehiago ditu, Filologia ikasten ari da Gasteizen, etxetik kanpo, duela urtebetetik.

OHARRA

Lehenengo kontsultan, pazientea jada eskolan DBHko bigarren hiruhilekoan dago. Deigarria iruditu zaigu zein gutxi hitz egiten duen eta nolako zailtasunak dituen bere egoera argi eta garbi adierazteko. Burumakur esan digu harreman ona duela bere ikaskideekin, baina ez du preferentziarik aipatu, denak omen direlako bere lagunak. Oso zaila da guretzat informazioa lortzea, Jokinek guri laguntzeko jarrera duen arren, bere erantzunak hauek direlako batik bat: “ez dakit”, “batzuetan” eta “besterik gabe”. Interesatzen zaionari eta nahi duenari buruz galdetzen diogunean ere badirudi bere nahiak eta interesak beste batzuei lotuta daudela. Adibidez: Nahiak: 1) bere familiak osasun ona izan dezala, 2) munduan ez dadila egon gatazka armaturik, 3) ikasketetan hobetzea. Arlo horretan, Jokin ez da gai aukera profesional posibleren bat adierazteko, eta nahiago du bere adina mantendu, hazteak zailtasunak ekarriko dizkiolakoan... “dena izango da zailagoa”.

Gurasoekin hitz egitean, elkarrizketaren bereizgarri bat da garrantzi handiegia ematen dietela alderdi akademikoei. Era berean, erantzukizunei dagokienez semeak utzikeriaz jokatzeko duela azpimarratzen dute. Esan digute eskolarako laguntza asko jarri dizkiotela, Jokin motela dela, arreta galduta dabilela, eta azken urte eta erdian izaera-aldaketa bat izan duela; hau da, izatez, mutil atsegina, zuhurra eta arduratsua zen, eta suminkor bihurtzen hasi zen, eta eskolarekiko interesa galtzen, beti dago nekatuta eta gehiegi egiten du lo. Denbora-tarte horretan ez dute aldaketarik edo arintze-aldirik nabaritu Jokinen egoerari dagokionez. Semearen okerragotze orokorraren aurrean izan dituzten justifikazio-edo zorrotasun-jarreraren harira desadostasunak eta gatazkak izan dituztela onartzen dute. “Nerabearoa zela uste genuen”. Aitak onartzen du bera zorrotzagoa dela eta pazientzia gutxiago duela; semea patxadazalea eta geldia dela dio, eta ezaugarri horiek azpimarratzeko, hainbat kirol eta jarduera fisiko egiteko saioak bertan behera utzi dituela azaldu du. Amak ere esan du Jokinek ez duela interesik kirolari eta lehiatzeari dagokienez, baina super heroien komikien zale porrokatua omen da, eta zaletasun hori kide batekin komunean zeukan. “Beti egoten ziren elkarrekin”, baina lehen hezkuntzako 5. mailan banandu egin ziren, bere laguna hiriz aldatu zenean.

FAMILIA-AURREKARIAK ETA AURREKARI PERTSONALAK

Amak esan duenez, Jokin jaio baino 3 urte lehenago seme bat galdu zuen, jaio eta 2 hilabetera, bihotzeko malformazio baten ondorioz. Jokinen lehenengo urtean izan zituen kezka deskribatu ditu, eta mutilak ez zuela lo lasaia eta haserrekorra zela ere azaldu du. “Beti nahi izaten zuen besotan egon”. Bularra eman zion 9 hilabete izan zituen arte, eta kostatu egin zitzaion janari solidoetara pasatzea. Ezezagunekin larritu egiten zen, eta horregatik, amak eszedentzia eskatu zuen bere kutxazain-lanpostuan, Jokinek 3 urte eta erdi izan zituen arte. Zailtasunak izan zituen eskolaurrean hastean, 3 urte eta erdirekin; 4 urte inguru zituela, argi hitz egiten zuen. 3 urte zituenerako, esfinterra kontrolatzen zuen, baina erretentzio-enkopresi episodioak izan zituen 5 urterekin. Hainbat fobia (iluntasuna, olatuak eta hondamendiak) eta amesgaiztoak; gurasoekin egin zuen lo 9 urte izan zituen arte. Amesgaiztoei dagokienez, pazienteak amesgaizto errepikakor bat gogoratzen du: “tsunami batek bere itsasontziari buelta ematen dio, bera igerian doa kostalderantz, baina ezin da bazterreraino iritsi, olatuek itsasoan barnatzen dutelako berriro”.

- 25.- Koadro kliniko honek diagnostiko hauetako zeinetara bideratzen gaitu?**
- a) Aldentze-antsietatearen nahasmendua.
 - b) Antsietate-nahasmendu orokortua (TAG).
 - c) Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua, forma ez-arretatsua.
 - d) Distimia.
- 26.- Jarrera terapeutiko desberdinen artean, zure ustez, zein da desegokiena kasu honetarako?**
- a) Laguntza pedagogikoa eta estimulatzailerak.
 - b) Esku-hartze psikoterapeutiko mistoa familiarekin eta umearekin.
 - c) Harremanera eta sozializaziora bideratutako talde-tratamendua.
 - d) ISRSrekin tratatzea eta psikoterapia indibiduala.
- 27.- Mutilak dituen adierazpen-zailtasunak ikusita, zer proba ez lirateke izango erabilgarriak diagnostiko zehatzagoa lortzeko?**
- a) TAT eta giza irudiaren testa.
 - b) BECKen edo KOVACSen depresio-inbentarioa.
 - c) EMAY eta REYren testa.
 - d) WISC eta MACI.
- 28.- Enkopresiari dagokionez, ondorengo baieztapen hauetako zein da gezurra?**
- a) Enkopresien % 50-60 artean izaten dira enkopresi sekundarioa idorrieriarekin eta gainezkatzearekin.
 - b) Enkopresi funtzionala duten ume gehienek kasuan, ez dirudi jokabide-arazo larriarik dutenik.
 - c) Enkopresi sekundarioa sarritan agertzen da 8 urteko adinetik aurrera.
 - d) Erretentzioa gurasoek hesteen entrenamenduaren inguruan izandako gatazken ondoriozkoa izan daiteke, edo komuna beldurragatik ekiditearen ondoriozkoa.
- 29.- Antsietate-nahasmenduei dagokienez, ondorengo baieztapen hauetako zein da gezurra?**
- a) Hautzaroko antsietate-nahasmenduak dituzten umeen alterazio funtzionala aurreikusteko baliabiderik onena da amak umearen jokabide-zailtasunei buruz ematen duen informazioa.
 - b) TAG duten 7 eta 18 urte arteko pazienteen inguruko ikerlan batzuetan, erdiak baino gehiagok zuen depresio-nahasmendu komorbido bat.
 - c) Kendall-ek (2001) zioenez, antsietate-nahasmendu bat diagnostikatuta izanik aldi berean nahasmendu komorbido bat zuten pertsonen sintoma barneratu arinagoak zituzten antsietate-nahasmendu bat bakarrik zutenek baino.
 - d) Aldentze-antsietatearen nahasmendua duten ume-taldeekin egindako hainbat ikerketatan, sexuen arteko proportzioa parekoa da, eta nerabezaroarean pixka bat handiagoa da nesken artean.

ERRESERBAKO GALDERA

- 30.- Sintoma somatikodun nahasmenduen kasuan, baieztapen hauetako zein ez da egia?**
- a) Somatizazio-nahasmenduak dituzten umeeek arrisku handiagoa dute nahasmendu psikiatrikoak izateko.
 - b) Gaixotasun kronikoak dituzten umeeek disfuntzio-gradu baxua izan dezakete beren garapen emozionalean.
 - c) Nahasmendu funtzionalek ez dute sintomen iraunkortasunean eta errejidiban eragina duen osagai psikologikorik.
 - d) Bi urteko adinean asma agertzea amaren guraso-gaitasunari eta aurre-egiteari lotutako azaroekin erlazionatu izan da.

6. KASU PRAKTIKOA

Amak 40 urte ditu, eta aitak 37. 10 urtetik gora daramate elkarrekin, eta ez zuten seme-alabak izateko aukera aintzat hartu, arazo ginekologikoen ondorioz (miomak eta metrorragiak). Amak 39 urte zituela, ginekologoak histerektomia bat proposatu zion, lehenago egin zizkioten miomektomiak ez zirelako izan eraginkorrak. Antisorgailuak erabiltzeari utzi zioten, eta handik hilabete gutxira haurdun geratu zen, baina abortu espontaneo bat izan zuen 10. astean. Hilabete batzuk geroago, berriro geratu zen haurdun. Haurdunaldi ona, umea bere garaian jaio zen, zesarea bidez, fetua zeharka jarrita zegoelako.

Pisua: 3200, APGAR 8/10. Tortikolisa eskuineko aldean, plagiozefalia txikia eta oin ekinoak. Ume lasaia, itxuraz serioa, kostatzen zitzaion bera bakarrik lokartzea; bularra ematen zioten unean uneko beharraren arabera, eta bularra hartu eta minutu gutxira lokartzen zen, baina tarte txiki batez bakarrik, amaren besotan geratuz, eta gurasoek inguruko isiltasuna zaintzen zuten, umea ez esnatzeko. Beti egiten du lo gurasoetako batekin. Errehabilitazio-zerbitzura bideratu zituzten (asteroko saioak, 10 hilabetez), eta umearen tortikolisa eta oinen kokapen okerra konpondu ziren. Sarri joaten ziren larrialdietara (bularreko haurraren asma). Amak bajan jarraitu zuen amatasun-baimena bukatu ondoren.

Mugarriak: hilabeterekin, irribarre egiten hasi zen, eta bera bakarrik ibiltzen hasi zen urte eta erdi zituenean. Bi urterekin, hizkuntza ulergarria eta komunikatiboa du. Pardelean egiten du txiza eta kaka, txizontzian esertzea eskatzen duen arren.

Bi urte inguru zituela, umeak modu bitxian egiten zuela korrika ikusi zuten, lepoa bat-batean alboratzen zuen, tonua galduko balu bezala, sarritan nekearen ondorioz; kezkatu egin ziren eta horregatik eskatu zuten hitzordua berriro. Tortikolisaren errezidiba baztertuta, traumatologoak RMN bat eskatu zuen; bertan ikusten da erdiko herenean gorputz kailukararen meheagotze bat dagoela, bolumen txikiko hipofisiari lotutako zela turkiar zabaldu batekin. Neuropediatriara bideratu zituzten, eta handik arreta goiztiarrera.

31. Gorputz kailukararen hipoplasiari dagokionez, hauetako zein EZ da erantzun zuzena?

- a. Baliteke aurkikuntza kasuala izatea.
- b. Sarritan egoten da atzerapen psikomotorrarekin erlazionatuta.
- c. Sarritan egoten da hizkuntzaren alterazioekin erlazionatuta.
- d. Gorputz kailosoaren agenesia dagoenean, adierazpen klinikoa berbera da ezkerti nahiz eskuinen kasuan.

26 hilabete zituenean, Arreta Goiztiarreko balorazioan, Brunet-Lèzineren garapen-eskala eta Garapen Motorraren Peabody eskala pasatu ostean ondorioztatu zen zailtasunak dituela arlo guztietan (arlo motorrean eta sozialean bereziki).

32. Ondorengo proba hauetakoen artean, zein EZ da erabilgarria paziente honen ikuspegi diagnostikorako?

- a. Rivière-ren I.D.E.A inbentarioa.
- b. M-CHAT.
- c. CMAS-R eskala.
- d. Merrill-Palmer.

Txostenaren arabera, arlo kognitiboan arreta-zailtasunak ikusten dituzte, baita inpultsibitate handia ere, eta horregatik egoten da denbora laburra jarduera batean. Askotan, arreta falta horrek ekintza komunikatiboak eta sozialak zailago egiten ditu.

33. Adierazi zein den baieztapen ZUZENA:

- a. Arreta faltak eta gorputz kailosoaren hipoplasiak ez dute zerikusirik.
- b. Probabilitaterik handieneko diagnostikoa: TDAH konbinatua eta garapenaren nahasmendua.
- c. Gurasoen antsietateak eta gehiegi babestu izanak eragin dituzte arreta falta eta inpultsibitatea.
- d. Amaren depresioak ez du sistematikoki eta linealki eragiten umeak patologia bat izatea, eta ez du eragiten elkarrekintzen arloko eskasia bat.

Umeak begi-kontaktu eskasa egiten du elkarrekintza bat hasi, mantendu edo bukatzeko, eta areagotu egiten da "jolas zirkular"etan eta antzeko jardueretan. Jarduerekin edo berarekin elkarrekintzan diharduten pertsonekin gozaten ari dela edo ez duela nahi adierazteko gauza da (negar edo irribarre eginez, keinuekin edo hitzez eskatuz jarduerarekin jarraitu nahi duela). Agindu errazak ulertzen ditu, eta "zer", "nor" eta "non" partikulak dituzten galderei erantzuten die. Tarteka, esaldi batzuk ezohiko moduren batean erabiltzen ditu, edo testuingurutik kanpo. Zenbaki guztiak ezagutzen ditu 99ra arte, letra guztiak dakizki, bere kideen izen idatziak bereizten ditu (eta bere kideak ere bai) eta koloreak bereizten ditu. Ia ez du parte hartzen bere kideekin jolastean, eta ez dago jolas sinbolikorik.

34. Ume honi TEA diagnostikatuko bagenio, DSM-V diagnostikoen sailkapeneko irizpideen arabera, OKERREKO baieztapena izango litzateke:

- a. Larritasunaren adierazleak aldatu egin daitezke testuinguruaren arabera, baita denbora joan ahala ere.

- b. Komunikazio sozialari lotutako zailtasunen larritasuna, eta jokabide mugatu eta errepikakorrena, bereizirik ebaluatu behar dira.
- c. Komunikazio sozialaren nahasmenduak (pragmatikoa), TEAk ez bezala, ez du bereizgarri hizkuntzaren mugarren lorpenaren atzerapena, ezta egiturazko hizkuntzaren inguruko arazoak ere.
- d. Aldi berean diagnostikatu ahal dira TEA eta mugimendu estereotipatuen nahasmendua, baldin eta azken horiek autolesioak eragiten badituzte eta tratatzen badira.

35. Umea eskolaratzeari dagokionez, zer izango litzateke egokiena?

- a. TEA duten umeentzako heziketa-zentro berezi batean eskolatzea.
- b. Hezkuntza-premia bereziak dituzten umeentzako baliabideak dituen eskola arrunt batean eskolatzea.
- c. Baliabide espezifikorik gabeko gela arrunt batean eskolatzea, ikaskuntzetan bere adinerako espero denaren gainetik dagoelako jada.
- d. Gaitasun handiekiko sentsiblea den zentro batean eskolatzea, bere gaitasunak osoki gara ditzan.

Erreserbako galdera

36. Nerabezaroan, bere bilakaerari dagokionez, kasu hauetakoren bat FALTSUA da:

- a. Aldi honetako birmoldaketa psikikoek mugatuak izaten jarraitzen dute, eta ez dute ahalbidetzen paziente horiek maila benetan genitalizatu batera iristea beren objektu-harremanean.
- b. Pubertaroko eraldaketak aldaketak eragiten ditu koadro klinikoan.
- c. Jarraitutasuna egongo da, halaberrez, haurtzaroko psikosiaren eta helduarokoaren artean, nerabezarotik igaroz.
- d. Bizitzako gertakariak epigenoma aldatzen dute, eta horregatik, baliteke lehen haurtzaroan isilduta dauden geneak aktibatzea, hau da, fenomeno epigenetiko mesedegarriak gerta daitezke, ekintza terapeutikoak edo ikaskuntzak bizitza ekar lezaketanak.

OSAKIDETZA

2018ko otsailaren 7ko 111/2018
Erabakiaren bidez, egindako
Oposaketa-Lehiaketarako deia
(EHAA 35 Zkia. 2018ko otsailaren
19koa)

Concurso-Oposición convocado por
Resolución 111/2018 de 7 de febrero
de 2018 (B.O.P.V. N° 35 de 19 de
febrero de 2018)

KATEGORIA:

**FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO
MEDIKUA**

CATEGORÍA:

FAC. ESP. MÉDICO PSIQUIATRÍA INFANTIL

Proba eguna: **2018ko maiatzaren 20a**
Fecha prueba: **20 de mayo de 2018**

2. ariketa / 2º ejercicio

CASO N° 1

Un niño de 12 años, es atendido por su psiquiatra en una consulta de seguimiento.

De siempre ha sido un niño impulsivo, con marcada dificultad para centrar la atención, inquietud psicomotriz y dificultades en las relaciones sociales por no respetar los turnos de juego en grupo. A los 7 años fue diagnosticado de Trastorno por déficit de atención con hiperactividad y un año después comenzó tratamiento con Metilfenidato, el cual mantiene prescrito en la actualidad.

